Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko uztailaren 17a, asteazkena — 138 — Miércoles, a 17 de julio de 2024

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA — 4 — ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA

## EUSKO JAURLARITZA

### EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

**Lan eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza**

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, Autobuses Urbanos Irun-Fuenterrabía, S.L. enpresako langileentzako greba amaierako akordioaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena.*

AURREKARIAK

*Lehenengoa.* 2024ko uztailaren 3an, enpresako zuzendaritzak eta greba-batzordearen ordezkaritzak sinatu zuten aipatutako greba amaierako akordioa.

*Bigarrena.* 2024ko uztailaren 3an, aurkeztu zen aipatutako greba amaierako akordioa Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan eta Gordailuan inskribatzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Honako egintza emateko eskumena, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

*Bigarrena.* Hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuri buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.d) artikuluan adierazitakoaren arabera, greba amaierako akordioak Erregistroan inskribatuko dira.

*Hirugarrena.* Inskribapen eskaera eta erantsitako dokumentazioa aztertu ondoren, eskatutako baldintzak biltzen dituela egiaztatu dugu, Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistro eta Gordailuari buruzko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 9. artikuluaren arabera.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2024ko uztailaren 4a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (5157)

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

**Delegación Territorial de Trabajo y Seguridad Social de Gipuzkoa**

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del acuerdo de fin de huelga para el personal de Autobuses Urbanos Irun-Fuenterrabía, S.L.*

ANTECEDENTES

*Primero.* El día 3 de julio de 2024, se suscribió el acuerdo de fin de huelga citado por la dirección de empresa y la representación del comité de huelga.

*Segundo.* El día 3 de julio de 2024, se presentó el referido acuerdo de fin de huelga para su inscripción en el Registro y Depósito de Convenios y Acuerdos Colectivos.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia para dictar el presente acto corresponde al Delegado Territorial de Gipuzkoa de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

*Segundo.* Conforme al art. 2.1.d) del Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo, sobre Registro y Depósito de Convenios y Acuerdos Colectivos, serán objeto de inscripción en el referido Registro, los acuerdos de fin de huelga.

*Tercero.* De conformidad con lo dispuesto en el art. 9 del Decreto 9/2011, de 25 de enero, de Registro y Depósito de Convenios y Acuerdos Colectivos, se ha procedido a analizar la solicitud de inscripción y la documentación anexa y la misma reúne los requisitos exigidos.

En su virtud,

RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 4 de julio de 2024.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (5157)

EK\CV GAO-I-2024-05157

*Eguna:* asteazkena, 2024ko uztailak 3.

*Hasiera ordua:* 10:00.

*Amaiera ordua:* 11:00.

*Tokia:* Lan Harremanen Kontseiluaren Lurralde Egoitza, Javier Barkaiztegi 19, behea, Donostia.

Bertaratuak:

— Euskal Langileen Alkartasuna (ELA) Aitor Iturain Aramendi.

— Autobuses Urbanos Irun-Fuenterrabia, S.L. (AUIF) Marta Gascue Gortari eta Ion Tamayo Murillo.

— AUIF ELAko langileen ordezkariak: Nerea Jorge Baigorri eta Javier Blanco Ugarte.

— AUIF enpresaren ordezkaritzak eta AUIFeko langileen ordezkarien gehiengoak akordio hau lortu dute:

*Lehenengoa.* AUIFen egungo hitzarmenaren indarraldia luzatzea 26/12/31ra arte, eta haren baldintza ultraaktiboak mantentzea hura berritu arte.

*Bigarrena.* AUIFen hitzarmeneko 6., 7., 12., 17., 20., 27. eta 34. artikuluen idazketa aldatzea, honela gera dadin:

*6. artikulua. Soldatak berrikustea.*

2024. urterako eta Hitzarmen Kolektibo honen indarraldiko gainerako urteetarako, soldata-igoera aurreko urteko Euskadiko KPIaren araberakoa izango da. Igoera hori Hitzarmenean ezarritako soldata-kontzeptu guztiei aplikatuko zaie, 9. artikuluan arautako kobrantza-plusa izan ezik, Hitzarmenaren indarraldi osoan ez baita aldatuko.

*7. artikulua. Uztaileko eta Gabonetako aparteko haborokinak eta mozkinetako partaidetza.*

2025/01/01etik aurrera, sei hilean behin bi ordainsari ezartzen dira, udakoak eta Gabonetakoak, bai eta urteko beste hirugarren mozkin bat ere. Ordainsari horien zenbatekoa Hitzarmeneko oinarrizko soldataren 30 egunekoa izango da (I. eranskineko taulen arabera), gehi dagokion antzinatasuna.

Aparteko haborokinak honako faktura hauetan ordainduko dira:

— Udako ordainsaria: uztailaren 15ean.

— Gabonetako ordainsaria: abenduaren 22an.

— Mozkinen ordainsaria: martxoaren 15ean.

Langileak urtean zehar sartu badira edo urtean zehar lana utzi badute, haborokinak ordainduko dira, lan egindako denboraren proportzioan. Era berean jokatuko da langilea lan-kontratua etenda badago Langileen Estatutuaren 45.1) artikuluan adierazitako arrazoiren batengatik.

*12. artikulua. Gaueko zerbitzuaren plusa.*

2025/01/01etik aurrera, gaueko zerbitzutzat (Gautxori) hartuko da gidari-hartzaileek 23:00etatik hurrengo eguneko 7:00etara enpresak adierazitako linea edo zerbitzuetan ematen dutena. Gaueko zerbitzu hori itundutako urteko lanaldiaren barruan sartzen da.

«Gaueko zerbitzuaren plusa» kontzeptupean, zerbitzu hori egiten duten gidari-hartzaileei 187,39 € ordainduko zaizkie kontzeptu guztiengatik 2024an, gaueko zerbitzuan benetan lan egindako egun bakoitzeko.

Zerbitzu horrek 4 ordu arte irauten badu, zenbatekoaren % 50 ordainduko da, eta zerbitzua 4 ordu baino gehiagokoa bada, osorik ordainduko da.

*Día:* miércoles, 3 de julio de 2024.

*Hora inicio:* 10:00.

*Hora fin:* 11:00.

*Lugar:* Sede Territorial del Consejo de Relaciones Laborales, Javier Barkaiztegi, 19, bajo, San Sebastián.

Asistentes:

— Euskal Langileen Alkartasuna (ELA): Aitor Iturain Aramendi.

— Autobuses Urbanos Irun-Fuenterrabia, S.L. (AUIF): Marta Gascue Gortari y Ion Tamayo Murillo.

— Delegados de personal de AUIF: ELA: Nerea Jorge Baigorri y Javier Blanco Ugarte.

— La representación de la empresa AUIF y la mayoría de los delegados de personal de AUIF alcanzan el siguiente acuerdo:

*Primero.* Prorrogar la vigencia del convenio actual de AUIF hasta el 31/12/2026. permaneciendo sus condiciones ultraactivas hasta la renovación del mismo.

*Segundo.* Modificar la redacción de los artículos 6, 7, 12, 17, 20, 27 y 34 del convenio de AUIF para que quede en los siguientes términos:

*Artículo 6. Revisión salarial.*

Para el año 2024 y cada uno del resto de años de vigencia del presente Convenio Colectivo el incremento salarial será conforme al IPC de Euskadi del año inmediatamente anterior, que será aplicable a la totalidad de conceptos salariales establecidos en el presente Convenio, a excepción del plus de percepción regulado en el art. 9 que permanecerá inalterado durante toda la vigencia del Convenio.

*Artículo 7. Gratificaciones extraordinarias de julio y Navidad y la participación en beneficios.*

Desde 01/01/2025, se establecen dos pagas semestrales, de verano y Navidad, así como otra tercera anual de beneficios, cuyo importe será el de 30 días de salario base Convenio (según las tablas del anexo I) más la antigüedad correspondiente.

El abono de las gratificaciones extraordinarias se realizará en las siguientes fechas:

— Paga de verano: día 15 de julio.

— Paga de navidad: día 22 de diciembre.

— Paga de beneficios: día 15 de marzo.

En aquellos casos en que el personal hubiera ingresado en el transcurso del año o cese durante el mismo, se abonarán las gratificaciones prorrateando su importe proporcionalmente con el tiempo trabajado. Del mismo modo se procederá cuando la persona trabajadora se encuentre en situación de suspensión del contrato de trabajo por alguna de las causas indicadas en el artículo 45.1) del Estatuto de los Trabajadores.

*Artículo 12. Plus de servicio nocturno.*

Desde 01/01/2025, se entenderá por servicio nocturno (Gautxori) el prestado por los conductores-perceptores desde las 23:00 horas hasta las 7:00 horas del día siguiente en las líneas o servicios indicados por la Empresa. Dicho servicio nocturno se incluye dentro de la jornada anual pactada.

En concepto de «Plus de servicio nocturno» se abonará a los conductores-perceptores que efectúen dicho servicio la cantidad total, por todos los conceptos, de 187,39 € en 2024, por día de trabajo efectivo en servicio nocturno.

En caso de que dicho servicio dure hasta 4 h se abonará el 50 % del importe y si el servicio supera las 4 h se abonará íntegramente.

EK\CV GAO-I-2024-05157

*17. artikulua. Lanaldia.*

Bi alderdiek adostu dute 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera Irungo hiri-zerbitzuari atxikitako langileek 1.706,25 orduko lanaldia izango dutela urtean. Aurrekoaren arabera, Estatuko gobernuak astean 37,5 orduko lanaldia onartzen badu, 2026/01/01eko hurrengo esleipenean 2026tik aurrerako urteko lanaldia 1.638 ordukoa izango da. Hori guztia soldata murriztu gabe.

*20. artikulua. Aldi baterako ezintasunagatiko prestazioak.*

2025/01/01etik, baldin eta ezintasun iragankorragatiko baja-egoeretan legezko prestazioak gaur egun bezala mantentzen badira, enpresak honako zenbateko hauek ordainduko dizkie egoera horretan dauden langileei:

a) Gaixotasun arruntagatiko AEn: lehenengo 20 egunetan: prestazioa kalkulatzeko balio izan duen oinarriaren ehuneko 75, eta oinarri beraren ehuneko 90, bajaren 21. egunetik aurrera. Legez ezarritakoarekiko osagarri hori urtean bitan baino ez da sortuko.

b) Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasunean: bajaren lehen egunetik: legezko prestazioa kalkulatzeko balio izan duen oinarriaren % 90.

Kontingentzia arrunt edo profesionalengatiko osagarri horiek 18 hilabeteko mugarekin ordainduko dira, betiere langileak enpresarekin harremana bizirik mantentzen badu.

*27. artikulua. Ordaindutako lizentziak.*

Langileen Estatutuan ezarritako gutxienekoak sartuko dira, 2023ko ekainaren 28ko errege lege-dekretua aldatu ondoren.

*34. artikulua. Hitzarmena ez aplikatzea.*

Enpresak akordio hau aldi baterako ez aplikatzeko asmoa badu (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta), akordioaren sinatzaileei jakinarazi beharko die, gutxienez 15 egun lehenago, aipatutako kontsulta-aldia hasi baino. 82.3 Langileen Estatutua. Kontsulta-aldian langileen ordezkariekin akordiorik lortzen ez bada, eta gatazkak konpontzeko lanbide arteko akordio aplikagarrietako prozedurek desadostasuna konpontzen ez badute (arbitrajea bi alderdiak berariaz ados jartzeagatik soilik egingo da), bi alderdien arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkaritza eta langileen ordezkaritzaren gehiengoa), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ORPRICCEren edo, hala badagokio, CCNCCren esku jartzeko.

Lan-baldintzen funtsezko aldaketa, 41 LEk akordioa eskatuko du eraginpeko langilearekin (banakako MSCT) edo langileen ordezkaritzarekin (izaera kolektiboko MSCT), eta ezin izango da gauzatu bestela.

Aipatutako artikuluko mugigarritasun geografikoaren ondorioetarako, 40 LE, bizileku-aldaketatzat hartuko da lantoki batera lekualdatzea dakarren aldaketa, baldin eta:

— AUIFeko gaur egungo kotxetegiak ez diren beste probintzia batean kokatzea.

— AUIFeko egungo kotxetegietatik 3 kilometro baino gehiagora egotea.

*Hirugarrena.* Akordio hau eta hiru urteko indarraldia duen enpresa-hitzarmena, 2026/12/31ra arte, Irungo Hiri Zerbitzuaren hurrengo lizitazio-agirian langileen lan-baldintza gisa jasotzearen mende dago.

*Laugarrena.* Berehala batzorde bat sortzea, eraso- eta jazarpen-kasuetan jarduteko eta jarraipena egiteko protokoloa

*Artículo 17. Jornada Laboral.*

Ambas partes acuerdan que, desde 01/01/2025 los trabajadores adscritos al servicio urbano de Irun tendrán una jornada anual de 1.706,25 horas. De acuerdo con lo anterior, si se aprobase la jornada laboral de 37,5 horas semanales por el gobierno estatal, en la siguiente adjudicación a 01/01/2026 la jornada anual a partir del año 2026 será 1.638 horas. Todo ello sin reducción en el salario.

*Artículo 20. Prestaciones Incapacidad Temporal.*

Desde 01/01/2025, Siempre que en las situaciones de baja por Incapacidad Temporal las prestaciones legales se mantengan como en la actualidad, la Empresa abonará a las personas trabajadoras que se encuentren en tal situación, las cantidades siguientes:

a) En IT por enfermedad común: en los 20 primeros días: el 75 por cien de la base que haya servido para el cálculo de la prestación, y el 90 por cien de la misma base a partir del día 21.º de baja. Este complemento respecto a lo legalmente establecido se devengará, tan solo, dos veces al año.

b) En IT por accidente laboral o enfermedad profesional: desde el primer día de baja: el 90 % de la base que haya servido para el cálculo de prestación legal.

Los referidos complementos, por contingencias comunes o profesionales, se abonarán con el límite de 18 meses, siempre y cuando la persona trabajadora mantenga viva la relación con la Empresa.

*Artículo 27. Licencias retribuidas.*

Se incorporarán los mínimos establecidos en el E.T tras la modificación del real decreto-ley de 28 de junio de 2023.

*Artículo 34. Descuelgue.*

En caso de que la empresa pretendiera la inaplicación temporal del presente acuerdo (por motivos económicos, técnicos, organizativos o de producción), deberá poner dicha pretensión en conocimiento de los firmantes del acuerdo con una antelación mínima de 15 días al inicio del período de consultas al que se refiere el art. 82.3 ET. En caso de que no se llegara a un acuerdo con la representación de las personas trabajadoras en el período de consultas, y los procedimientos para la resolución de conflictos de los acuerdos interprofesionales que fueran de aplicación no resolvieran la discrepancia (el arbitraje se producirá únicamente por el sometimiento expreso de ambas partes), será necesario el acuerdo entre ambas partes (representación de la empresa y mayoría de la representación de las personas trabajadoras) para someter el desacuerdo sobre la inaplicación al ORPRICCE o, en su caso, a la CCNCC.

La modificación sustancial de condiciones de trabajo del art. 41 ET exigirá del acuerdo bien con el trabajador afectado (MSCT individuales) bien con la representación de las personas trabajadoras (MSCT de carácter colectivo), no pudiendo llevarse a efecto en otro caso.

A los efectos de la movilidad geográfica del art. 40 ET, se considerará cambio de residencia aquella que suponga el traslado a un centro de trabajo que:

— Se ubique en una provincia distinta de las actuales cocheras de AUIF.

— Diste más de 3 kilómetros de las actuales cocheras de AUIF.

*Tercero.* Este acuerdo junto al convenio de empresa al que se amplía la vigencia tres años, hasta 31/12/2026, está supeditado a que se recoja en el próximo pliego de licitación del Servicio Urbano de Irun, como condiciones laborales de los trabajadores.

*Cuarto.* La creación inmediata de una comisión que elabore un protocolo de actuación en casos de agresión y acoso, y se-

EK\CV GAO-I-2024-05157

egingo duena. Batzorde horretan, hiriko eta enpresako zerbitzuko langileen kideak agertuko dira. Udaltzainek eta Udaleko mugikortasun-arloak parte hartu ahal izango dute.

*Bosgarrena.* L1aren bideragarritasunari buruzko azterlan bat egitea, maiztasuna 12 minutura pasatzeko puntako orduetan eta 15 minutura haraneko orduetan, eta horrela ager daitezela hurrengo lehiaketaren pleguetan.

*Seigarrena.* Langileen legezko ordezkaritzak konpromisoa hartzen du akordio hau sinatzean deitutako greba bertan behera uzteko, eta konpromisoa hartzen du, era berean, bake soziala bermatzeko, eta, zehazki, enpresako langileen plantillan dokumentu honetan adostutako baldintzak guztiz edo partzialki aldatzeko, erreformatzeko edo berrikusteko inolako presio-neurri kolektiborik ez hasteko, ez eta hartzeko ere, harik eta hurrengo enpresa-hitzarmenaren negoziazioak hasi arte.

guimiento del mismo, en la que figuren miembros de los trabajadores del servicio urbano, de la empresa. Donde podrán participar la policía local y el área de movilidad del Ayuntamiento.

*Quinto.* Llevar a cabo un estudio de viabilidad de la L1 para pasar la frecuencia a 12 min durante las horas punta y a 15 min durante las horas valle, y que figuren así en los pliegos del próximo concurso.

*Sexto.* La representación legal de las personas trabajadoras se compromete a desistir y desconvocar la huelga convocada a la firma del presente acuerdo, comprometiéndose, asimismo, a garantizar la paz social y, concretamente, a no iniciar, convocar ni adoptar medida colectiva de presión alguna dirigida a la modificación, reforma o revisión total o parcial de las condiciones, acordadas en este documento, de la plantilla de trabajadores de la empresa hasta el inicio de negociaciones del próximo convenio de empresa.

EK\CV GAO-I-2024-05157